



## PRENTSA DEIALDIA

# GEM Global 2025 Biltzarra Irekiera instituzionala

**Bilbao, 2025eko otsailaren 17an.** Otsailaren 17tik 19ra, Bilbo berrikuntzaren eta ekintzailetzaren topagune bihurtuko da **GEM Global 2025 Biltzarra** dela eta. Ekitaldiak 52 herrialde baino gehiagotatik etorritako ekintzailetzaren munduan eragina duten 400 pertsona baino gehiago bilduko ditu.

Konferentziaren irekiera instituzionala bihar egingo da, **otsailak 18**, goizeko **9:00etan**, **Bizkaia Aretoan**, Mitxelena auditorioan. Inaugurazio-ekitaldian izango dira **AILEEN IONESCU-SOMERS**, Global Entrepreneurship Monitor-eko zuzendari exekutiboa; **ANDOITZ KORTA**, Eusko Jaurlaritzako Industria Sustatzeko sailburuordea; **JUAN MARI ABURTO**, Bilboko alkatea; eta **ELIXABETE ETXANOBE**, Bizkaiko Ahalduen Nagusia.

GEM Global 2025 Biltzarra **EEB-OVEk, Ekintzailetzaren Euskal Behatokiak**, antolatatu du GEM Global eta GEM Spain erakundeekin lankidetzan, eta Bilboko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa du (SPRIren bitartez). Gainera, ekitaldiak Industria eta Turismo Ministerioaren (ENISA) eta Euskadiko hiru unibertsitateen babesa du: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Hitzaldiaren programari eta hizlariari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero: [www.gemconferencebilbao.org/eu](http://www.gemconferencebilbao.org/eu)



- **Gaia:** GEM Global 2025 Biltzarraren irekiera instituzionala
- **Lekua:** Bizkaia Aretoa, Mitxelena auditorioa. Abandoibarra Etorb., 3, Abando, 48009 Bilbo, Bizkaia.
- **Data:** Asteartea, 2025eko otsailaren 18an
- **Ordua:** 8:30 (argazki ofizialak)

**\*OHAR GARRANTZITSUA:** Hurrengo esteka honetan prentsarentzako material eskusiboa aurkitu dezakezu, baita astearteko irekiera instituzionalean akreditatzeko aukera ere:

<https://gemconferencebilbao.org/recursos-prensa/>

Cartier  
WOMEN'S  
INITIATIVE



HAUTE ÉCOLE DE GESTION  
HOCHSCHULE FÜR WIRTSCHAFT  
SCHOOL OF MANAGEMENT

Fribourg  
Freiburg

BertelsmannStiftung



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE INDUSTRIA  
Y TURISMO

enisa

